

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### LAUDIOKO UDALA

#### **Edateko uraren hornidura udal zerbitzua prestatzeagatiko tasaren kontribuzio padroia. 2016ko 3. hiruhilabetea. (Espedientea: H16-109)**

Ogasun eta Ondare Arloko Zerga eta Ordainarazpen Zerbitzuak 2016 urteko 3. hiruhilabetean zehar prestatu den Audio udalerriko edateko uraren hornidura udal zerbitzua prestatzeagatiko tasako kontribuzioa ordaindu behar dutenen zerrenda.

Alkatetza-udalburuak onartu du 2016ko urriaren 4 eguneko 2330 zenbakia duen ebazpenaz. Zerrenda hori jendaurrean erakutsiko da ALHAOn iragarki honen argitalpen egunaren biharamunetik hasita hamabost (15) lan eguneko epean zehar.

Interesa dutenek aipatu den tributazioko espediente hori aztertu ahal izango dute Herriko Etxeko -Udaletxeko- Ogasun eta Ondare Arloko bulegoan (Herriko Plaza 2. solairuan) 9:00/14:00 ordutegi barruan. Formula ditzakete, baita ere, euren eskubideekiko egoki eta komenigarri irizitako azalpen eskaerak, alegazioak edo/eta erreklamazioak.

Kontribuzio padroia jendaurrean erakusteak esan nahi du eta suposatzen du bere barruan sartuta dauden kitapenen jakinarazpen kolektiboa egiten dela, otsailaren 28ko, 6/2005 Arabako Tributuen Foru Arau Orokorreko 98. artikuluko 3. atalak eta Zergen Kudeaketa, Dirubilketa eta Ikuskapeneko Udal Ordenantzako 19-2 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Aipatu den alkatetzako ebazpenaren aurka kontribuzioa ordaindu beharra dutenek berraztertze errekurtsioa jarri dezakete, hilabete bateko (1) epearen barruan, iragarki honen jendaurreko erakusketa aldia amaitu ondorengo biharamunetik zenbatzen hasita.

Azalpen eskaerak, alegazioak, erreklamazioak eta berriro aztertzeko errekurtsioak alkate-udalburuari zuzendu behar zaizkio, lehenago aipatu den epearen barruan.

Borondatez ordaintzeko epea, bi hilabetekoa izango da, 2016ko urriaren 11 egunetik 2016ko abenduaren 12 egunera arte, biak barne hartuta.

Helbideratuta dauden errezibuak 2016ko urriaren 17 egunean kobratuko dira.

Tasaren ordainketa euren banku edo aurrezki kutxan helbideratu barik duten herritarrentzako kobrantza eta dirubilketa Kutxabank eta Laboral Kutxako bulegoen bitartez egingo da, kutxa horiek herritarren arretarako zabalik dauden ordutegian zehar, kobrantzaz arduratuko den kutxak etxera bidalitako ordaindu beharreko errezibua aurkeztuta. Erreziburik ez bada jaso ala jasotakoa galdu bada, errezibuaren ale bikoiztua eskatu Uren Udal Zerbitzu Bulegoan, Izoria kalean, 4 - behea eskuinean.

Borondatez ordaintzeko epea amaitu ondoren, ordaindu barik geratu diren errezibuak automatikoki eta berez behartze-bidezko derrigorreko kobrantza prozeduran sartuko dira eta ordaindu beharreko zenbatekoari gehitu beharko zaizkio legeetan erabakitako gainkarguak, berandutza-korrituak eta, hala badagokio, sor litezkeen berandutza eta behartze-bideagatiko kostuak.

Audio, 2016ko urriaren 4a

*Alkate-udalburua*

*JON IÑAKI URKIXO ORUETA*